



Funtsezko baliabideak

Baliabide fisikoak

Eco Closet proiektua etxetik garatuko dugu nagusiki; beraz, gure baliabide fisikoak etxeko lan-espazio batean oinarritzen dira. Lan-gune horretan ordenagailu eramangarriak, telefono mugikorak, interneteko konexio egonkorra eta aplikazioa diseinatu eta garatzeko beharrezkoak diren programak ditugu. Horrez gain, hodeiko plataformak erabiltzen ditugu dokumentu eta material guztiak gordetzeko eta antolatzeko.

Baliabide intelektualak

Baliabide intelektualari dagokienez, Eco Closeten ideia nagusia dugu: erabiltzaileen arteko arropa-trukea ahalbidetuko duen aplikazioa, Correosen bidezko bidalketa-sistemarekin integratuta, erosotasuna eta segurtasuna bermatzeko. Marka-identitate propioa ere badugu, Eco Closet izena, estilo bisualarekin. Horri gehitzen zaizkio taldearen ezagutza teknikoa, aplikazioaren egitura, erabiltzaile-esperientziaren diseinua, eduki propioen sorkuntza eta sare sozialen bidez zein etorkizuneko lankidetzekin eraikitzen ari garen harreman-sarea. Elementu ukiezin horiek guztiek balioa ematen diote proiektuari.

Giza baliabideak

Giza baliabideei dagokienez, diziplina anitzeko talde bat osatzen dugu. Oumaima da kudeaketaz arduratzen dena: proiektuaren eguneroko antolaketa, koordinazioa eta dokumentazioa bere gain hartzen ditu. Aritz da garatzailea, aplikazioa programatzeaz, datu-basearen egituraz eta funtzionalitate teknikoen mantentzeaz arduratzen dena. Uxuek proiektuaren hazkundea eta finantzaketa bermatzen du, etorkizuneko garapenerako baliabide ekonomikoak lortuz. Frida da marketinaren arduraduna, sare sozialak, komunikazioa, publizitate-kanpainak eta proiektuaren merkaturatze-estrategia kudeatzen dituen. Gure taldearen ezagutzek, trebetasunek eta sormenak proiektuaren arrakastarako giltzarri dira.

Finantza-baliabideak

Finantza-baliabideei dagokienez, Eco Closet-ek 4.000 euroko hasierako inbertsioa izango du, guk inbertitutakoa. Zenbateko hori aplikazioa garatzera, marka eta diseinu grafikoa sortzera, lehen erabiltzaileak erakartzeko marketin-ekintzetara eta kudeaketarako oinarritzko materialetara bideratuko da. Inbertsio horrek proiektua abiarazteko eta komunitate jasangarri bat sortzen hasteko aukera emango du.